

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4063

AGINDUA, 2023ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2023ko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko (Itsaspen Programa), otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren II. eta III. kapituluaren babesean.

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko (Itsaspen Programa) laguntzei buruzko otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak (2012ko martxoaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 47. zk.) helburutzat dauka herritarren oinarritzko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko laguntzak emateko araubidea sortu eta arautzea, eta jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzea itsasertzeko herriak biziberritzen, berritzen eta garatzen laguntzeko.

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 7. artikuluan xedatu bezala, urtero egingo da laguntzetarako deialdia, eta, horrekin batera, bigarren apartatuan bildutako honako eduki hauek finkatuko dira: zein den eskabideak aurkezteko epea; gehienez zenbat diru bideratuko den laguntzak banatzeko; zein diren diruz lagunduko diren laguntza-lerroak, kapituluka banatuta; irizpide objektiboen artean zein aplikatuko diren laguntzen zenbatekoa zehazteko; nolako dokumentazioa aurkeztu behar den; zein den inbertsioak eta gastuak egiteko eta justifikatzeko epea, eta, soberakin ekonomikorik badago, nola banatuko diren kapitulu bakoitzean.

Deialdi hau ebazterakoan, aintzat hartuko dira administrazio publikoen dirulaguntza-jarduera arautzen duten publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere honako arau hauek xedatutakoari jarraituz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko manuak; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak. Gainera, diru-baliabide erabilgarriak honako hauetan ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira: otsailaren 21eko 22/2012 Dekretua; agindu hau, eta 2021, 2022 eta 2023ko Dirulaguntza Plan Estrategikoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko otsailaren 20ko Aginduaren bidez onartua, zeinaren bidez laugarrenez aldatzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Xedea.

Agindu honen xedea da 2023ko deialdia egitea Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko (Itsaspen Programa), otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren II. eta III. kapituluetan aurreikusita baitaude.

Bigarrena.— Eskabideak eta dokumentazioa.

1.— 2023ko eskabide-eredua onartzen da, eskuragarri egongo dena web-helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/0113709>. Eredu horren bidez eskatu ahal izango dira otsailaren

21eko 22/2012 Dekretuan araututako Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak (Itsaspen Programa).

Agindu honen eranskinean jasota daude eskabide-ereduaren edukia eta eskatzaileek bete behar dituzten eremuak.

2.– Laguntza-eskabideak Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariari bidali behar zaizkio.

3.– Eskatzaileek bitarteko elektronikoz aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Eskabideak izapidetzeko xehetasunak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako agiriak honako helbide elektronikoa honetan egongo dira eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0113709>

4.– Eskabidea aurkeztu ostean egin beharreko izapideak, berriz, bide elektronikoa honetatik egin beharko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte dirulaguntzaren eskabidea eta eskatutako agiriak. Gainera, dirulaguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoari jarraituz.

6.– Laguntzak eskatzen dituztenek, eskabidearekin batera, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Bestalde:

– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Gainera, eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. zenbakian.

– Eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berariaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 3. zenbakiarekin bat etorritik. Dena den, adierazi beharko da noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu diren agiri horiek. Eskaera aurkeztuz gero, baimena emango da organo kudeatzaileak dokumentazio hori eskuratzeko. Horrek ez du esan nahi baimena berariaz ukatu ezin denik. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

7.– 2023ko ekitaldian, hilabetekoa izango da otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuan ezarritako laguntza-deialdira eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.– Betekizunak.

Deialdi honetako dirulaguntzak jasotzeko interesa dutenek egiaztatu beharko dute otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 5. artikuluko betekizunak betetzen dituztela, eta ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan dirulaguntzak debekatzeko jasotako egoeraren batean.

Laugarrena.— Gehieneko diru-zuzkidura globala.

1.— Gehienez ere, 500.000 euro zuzenduko dira agindu honen bidez 2023ko ekitaldirako iragarri diren laguntzei erantzuteko. Diru-kopuru horretatik, 382.500 euro II. kapitulukoak dira (153.000 euro 2023. urteko ordainketa-kreditukoak eta 229.500 euro, 2024. urteko konpromiso-kredituak). Eta 117.500 euro III. kapitulukoak dira: 47.000 euro 2023. urteko ordainketa-kreditukoak, eta 70.500 euro, 2024. urteko konpromiso-kreditukoak.

2.— Bi kapitulu horietako batean soberakinik badago, besteari esleituko zaio.

Bosgarrena.— Laguntza-lerroak eta diruz laguntzeko moduko kostuak.

1.— Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babesean 2023ko ekitaldian diruz lagunduko diren jarduerak eta kostuak dekretu horren II. eta III. kapituluetan aurreikusitakoak izango dira, hau da, honako hauei buruzkoak, hurrenez hurren: ekonomiarako eta itsasertzeko herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak ezartzea, eta itsasertzeko ondarea kontserbatu eta hobetzea.

Kostuen moderazioa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea betez ziurtatuko da. Kontratu txikien kasuan, otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidearen arabera, gutxienez hiru eskaintza eskatuko ditu kontratazio-organoak, eta horiek espedientean sartuko dira, kalitate-prezio erlazorik onena duen eskaintzaren justifikazioarekin batera. Hori posible ez bada, horren justifikazio arrazoitua txertatu beharko da.

Onuradunak ez badira sektore publikoko kontratazio-organo, diruz lagunduko den gastuaren zenbatekoa 40.000 euro edo handiagoa bada obretan, edo 15.000 euro edo handiagoa gainerakoan, gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde eskaintza horiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta gastua ez den dirulaguntzaren aurretik egin. Halako kasuetan, kostuen moderazioa egiaztatu beharko da, justifikazio-memoria baten bidez.

2.— Laguntza hauek bateraezinak izango dira Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak 2023ko ekitaldian bere jardun-eremuan egindako beste edozein deialditan eskuratutakoekin. Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek ofizios egiaztatuko dute bateraezintasun hori.

Seigarrena.— Laguntzak baloratzeko eta kuantifikatzeko irizpide objektiboak

1.— Proiektuak baloratzeko, kontuan izango dira otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako irizpide objektibo guztiak.

2.— Erakunde eskatzaile bakoitzak aukera izango du proiektu bat baino gehiago aurkezteko, baina lehentasuna emango zaio puntuazio handiena lortzen duenari. Soberakinik izanez gero soilik hartuko da aintzat puntuazio-hurrenkeraren arabera diruz lagundu daitekeen hurrengo proiektua. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, kasuan kasuko erakundeak, organo kudeatzailearen eskariz zehazten duen proiektua hautatuko da.

Zazpigarrena.— Betebeharrak.

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuko 12. artikuluan jasotako betebeharrez gain, onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 artikulukoak bete beharko dituzte, bai eta lege horretako 46. artikuluan lankidetzat beharri buruz adierazitakoa ere.

Zortzigarrena.— Inbertsioak eta gastuak gauzatzeko epea.

1.— II. eta III. kapituluetakoko ekintzei dagozkien inbertsioak eta gastuak urtekoak edo urte anitzekoak izan daitezke. Urteko proiektuak, gehienez ere, 2023ko abenduaren 31rako amaitu beharko dira, eta urte anitzekoak, berriz, 2024ko abenduaren 31rako, hargatik eragotzi gabe otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 13. eta 16.3 artikuluetan xedatutakoa betetzea. Diruz laguntzen diren proiektuak 2023ko ekitaldian hasi behar dira.

2.— Proiektu bakoitzaren inbertsio eta gastuak gauzatzeko epea zehazteko, aintzat hartuko da Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren Ebazpenean ezarritakoa, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 11. artikuluan.

Bederatzigarrena.— Inbertsioak justifikatzeko epea.

Urteko eta urte anitzeko proiektuetan, gehienez bi hilabeteko epean justifikatu beharko da inbertsioak eta aurreikusitako gastuak gauzatu direla, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsio- edo gastu-proiektua amaitzen denetik edo azken luzapenetik hasita, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 14.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzei dagokienez, honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: otsailaren 21eko 22/2012 Dekretua, itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena (Itsaspen Programa); Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren oinarritzako manuak; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokeite Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 18a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

ITSASPEN 2023KO ESKABIDE-INPRIMAKIAREN EDUKIA (II. ETA III. KAPITULUAK)

Web-helbide honetan eskura daiteke laguntza eskatzeko inprimakia: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0113709> Hona zer eduki duen:

Eremu generikoak:

- Identifikazio-agiriaren mota.
- Zenbakia.
- Izena (soilik pertsona fisikoen kasuan).
- Lehen abizena (soilik pertsona fisikoen kasuan).
- Bigarren abizena (soilik pertsona fisikoen kasuan).
- Sexua (soilik pertsona fisikoen kasuan).
- Entitatearen izena (soilik pertsona juridikoen kasuan).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Lurralde historikoa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea.
- Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
- Abisuak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.
- Legezko ordezkariaren datuak. Proiektuaren datuak:
- Izenburua.
- Inbertsioa edo gastuak (BEZik gabe), urteka banakatuta.

Eremu osagarriak: erantzukizunpeko adierazpena, honako hau dioena:

– Laguntza-eskabidean adierazitakoa egia da, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak dira; faltsutasunik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko du; eta ezingo du adierazi faltsutasun edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak ez zituela ezagutzen.

– Bai/Ez, markatu dagokiona: behean zerrendatzen diren erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatu die, edo haien laguntza jaso du proiektu honetarako; eta konpromisoa hartzen du aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkeztzen dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko.

– Bai/Ez, markatu dagokiona: 2021, 2022 eta 2023ko zerga-ekitaldietan, minimis erregela-menduei atxikitako laguntzak jaso ditu, eta haien zenbatekoa eurokoa da (adierazi zenbatekoa).

– Proiektuak bete egiten ditu ingurumen- eta higiene-arloko arauak, bai eta kasuan kasuko inbertsioei aplikatu beharreko erkidegoko arauak ere, eta ez dio ingurumenari ondorio kaltegarri esanguratsurik eragingo.

– Konpromisoa hartzen du, halaber, inbertsioa edo gastua egin dela eta proiektua gauzatu dela egiaztatzeko beharrezko dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzaren edo zehaztutako kontrol-organoen esku jartzeko.

– Ez dago zigor- eta administrazio-arloko dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

– Pertsona fisikoa edo juridiko pribatua izanez gero, krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europar Batasunaren 2004ko urriaren 1eko C244/2004 zuzentarauek edo horiek ordezkatzan dituen arauak ezartzen duen definizioarekin bat, bera titularra den enpresa ez dagoela krisialdian, eta, era berean, bideragarritasun ekonomikoa eta bere produktuentzat merkaturako irteera arruntak dituela.

Eskabidearen eranskinak:

Baimenak:

Baimena ematen dio deialdiaren organo kudeatzaileari honako hauek egiazta edo froga ditzan administrazio eskudunean:

– Bai/Ez, zerga-betebeharrak beteta izatea.

– Bai/Ez, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea.

– Bai/Ez, pertsona fisiko eskatzailearen nortasun-datuak.

– Bai/Ez, pertsona juridiko eskatzailearen legezko ordezkariaren nortasun-datuak. Proiektuaren datuak:

– Enpresa.

– Inbertsioaren kokalekua.

– Proiektuaren deskribapena.

– Inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa, kontzeptuen arabera banakatuta.

– Proiektu-motaren arabera adierazleak.

Aurkeztu beharreko agirien zerrenda.

Eskabidea betetzeko argibideak.